

## **Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -**

|                            |                                                                     |
|----------------------------|---------------------------------------------------------------------|
| Data eta lekua:            | 2020ko irailaren 19an<br>Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela |
| Hasiera eta amaiera ordua: | 18:00-19:30                                                         |

### **BERTARATUAK:**

#### Talde politikoak:

LEHENDAKARIA: Jon Insausti\_EUSKARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA  
Zigor Etxeburua\_EH BILDU  
Juanxo Iturria\_ELKARREKIN DONOSTIA  
Miren Azkarate\_EAJ  
Ane Oyarbide\_PSE-EE  
Mikel Lezama\_PP

#### Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Zuriñe Gonzalez\_BAGERA ELKARTEA  
Luis Mari Ralla\_BIZARRAIN ELKARTEA  
Josune Otxotorena\_BERRITZEGUNEA  
Iker Estebanez\_SHOPSS  
Oihana San Jose\_AEK  
Mikel Aiestaran\_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA  
Andoni Iraola\_REALA  
Idoia Elurbe\_KUTXABANK  
Eneritz Arrillaga\_IRUTXULOKO HITZA

#### Euskara Zerbitzuaren langileak:

IDAZKARIA: Edurne Otamendi (Zerbitzuaren burua)  
Alex Aisa (Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako Atalaren burua)

#### Beste:

Juanjo Ruiz (Emun Aholkularitza)

### **EZ DIRA BERTARATU:**

Oier Basurko\_BATZEN  
Maite Asensio\_URTXINTXA (ezin etorria adierazi du)  
Aimar Insausti\_EHUKo ordezkaria  
Naiara Lopetegi\_EUSKADIKO KUTXA

## 1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko bileraren akta onartu dute.

## 2. Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorraren funtzioak eta osaera onartzea

Kontseiluaren lehendakariak jakinarazi du Batzorde Iraunkor berria osatu behar dela eta ezagutzera eman ditu Batzordearen egitekoak eta funtzionamendua. Horrez gain, batzordearen osaerari buruzko xehetasunak eman ditu: Lehendakaritza (kontseiluaren lehendakaria) eta Lehendakariordetza (Bagera elkarteko ordezkaria) izendatuta daude dagoeneko, baina bokalak izendatzea falta da (5 gehienez eta horietatik %50 gutxienez herritarren elkarteetako ordezkariak izango direnak).

Bileran urratsa emango duen ordezkariak azaldu ez denez, idazkariak adierazi du 15 eguneko epean harremanetan jarriko dela kontseiluko hainbat kideekin parte hartzera animatzeko.

## 3. "Euskara eta eleaniztasuna San Martin merkatuan" txostenaren aurkezpena

Txostena kontseilu kideei banatu eta gero, lehendakariak azterketa egin izanaren arrazoiak eman eta datu eta ondorio nagusiak azaldu ditu.

Ondoren, Euskara Zerbitzuko hirirako hizkuntza normalizaziorako atalburuak azaldu du 2020ko udan Euskara Zerbitzuak telefono bidez harremanetan jartzea erabaki zuela Erdialdeko eta Altzako establezimenduetako arduradunekin informazioa eskaini eta hizkuntz egoera zein den ezagutzeko asmotan, pandemiak eragindako egoeraren ondorioz 2020an establezimenduetan bisitarik ez egitea erabaki baita. Donostia osoko establezimenduetara iristea ezinezkoa denez, bi auzo hauek lehenestea erabaki zen.

Telefono bidezko harremanak bi helburu zituen:

1- Udaleko Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea (bereziki errotuluak euskaratzeko dirulaguntzez eta baita eskaintzen den itzulpen eta zuzenketa zerbitzuaz ere) eta horiek erabiltzera animatzea.

2- Establezimenduetako hizkuntza paisaiaren egoera ezagutzea, jabeek aitortutako datuen bitartez.

600 bat establezimendutako ordezkariekin hitz egitea lortu da

Aitortutako datuen arabera, establezimenduen kanpo errotulazioaren hizkuntza honakoa da:

%55 izen propioa bakarrik

%26 gaztelaniaz

%9,8 ele bitan

%8 euskaraz bakarrik

Aitortutako datuen arabera, establezimenduen barruko errotulazioaren hizkuntza honakoa da:

%35,9 gaztelaniaz

%32 ele bitan

%1,7 euskaraz bakarrik

EHBilduko ordezkariak adierazi du Bagerak Erdialdeko hiruzpalau kaleetan establezimenduen hizkuntza paisaiaz egindako behaketak agerian utzi zuela paisaia erdalduntzen ari dela eta arazo baten aurrean gaudela.

Bestalde, San Martin merkatuko azterketaren inguruan adierazi du beharrezkoak direla mota horretako azterketak egitea eta errepikatzen direnak izatea, bilakaera ikusteko beharrezkoa da eta.

#### 4. 2020-2024 epealdirako Donostiako Euskararen Plan Orokorra

Udaleko Euskara Zerbitzuak Euskararen Plan Orokor berria diseinatzeko Emun Aholkularitza enpresa kontratatu zuen eta bertako ordezkariak, Juanjo Ruizek, azaldu ditu plana eratzeke egindako prozesua eta ibilbidea.

Behin parte hartze prozesuan jasotako ekarpenak ontzat eman eta planean txertatu eta gero, dokumentu osoa bidali zitzairen kontseilukide guztiei. Beraz, dokumentu horretan oinarrituta, Euskara Zerbitzuaren buruak Plan Orokor berriaren lerro nagusiak eta printzipio orokorrak aurkeztu ditu: aukera berdintasuna; Donostiako Udala arnasmune eta eragile izatea; ulermena unibertsalizatzea helburu; kultur aniztasuna; elkarlana eta koordinazioa; eta gazteen garrantzia.

Bestalde, Kontseiluaren lehendakariak adierazi du EHBilduk proposamen bat aurkeztu zuela udalbatzako batzordean Euskararen Plan Orokorrean beste zenbait ekarpen txertatzeko. Baina plan honen onarpena udalbatzari ez dagokionez, Tokiko Gobernu Batzarrari baizik, aipatu proposamena ezin izan zela batzorde horretan aztertu azaldu du. Gauzak horrela, proposamen horretako zenbait ekarpen planean aurreikustea egokitzen jotzen duela eta, ondokoak txertatu direla adierazi du:

4.6.4. *Euskarazko atal gehiago izendatu* ekintza gehitzea, Gizarte erabilera sustatzea helburu estrategikoaren laugarren esparruan (administrazioa).

4.6.5. *Udalbatzan euskararen erabilera areagotzeko berariazko plangintzak (Gipuzkoa berdina, Euskaraldia, zinegotzien prestakuntza...)* ekintza gehitzea, Gizarte erabilera sustatzea helburu estrategikoaren laugarren esparruan (administrazioa)

5.2.3. *Merkataritzak euskarak duen presentziari buruzko ikerketak egitea* ekintza gehitzea arlo sozioekonomikoan, Plan Orokorrearen indarraldian zehar egitea aztertzeke.

EHBilduren ordezkariak proposamen horiek txertatzea positibotzat jo duen arren, sartu gabe geratu direnak ere azaldu nahi dituela adierazi du:

- 1-Euskalduntzearen unibertsalizazioa dela eta, C1 arteko doakotasuna planteatzea.
- 2-Udalaren barne normalizazioari begira, laugarren atalean, administrazioan, zaintza atala sortzea euskararen erabilera ezartzen duten arauak eta hizkuntza irizpideak betetzen direla ziurtatzeko.
- 3-Udalaren kultur eskaintza indartzea eta 2024rako euskarazko eskaintzak %100eko hazkundera iristea.

Euskararen Zerbitzuaren buruak esan du lehendakariak aipatutako azken ekarpen hauek txertatuta, Tokiko Gobernu Batzarrean onartuko den dokumentua helaraziko zaiela.

Lehendakariak azkenik, galderentzako tartea zabaltu du eta horien ezean, bilera bukatutzat eman du 19:25ean.